

# Sektorearen txostena 2023

**LABURPEN  
EXEKUTIBOA**

Txosten osoa:  
[informedelsector.ongdeuskadi.org](http://informedelsector.ongdeuskadi.org)



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

### Araba

Simone de Beauvoir elkarteen etxea  
San Ignazio Loiolakoa 8, 3. pisua, 1. bulegoa  
01001. Vitoria-Gasteiz.  
945 280 745  
[araba@ongdeuskadi.org](mailto:araba@ongdeuskadi.org)

### Bizkaia

Erronda z.g. (5. zenbakiaren aurrean), 3. pisua, C bulegoa.  
48005. Bilbo.  
944 150 300  
[bizkaia@ongdeuskadi.org](mailto:bizkaia@ongdeuskadi.org)

### Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea.  
20001. Donostia.  
943 463 526  
[gipuzkoa@ongdeuskadi.org](mailto:gipuzkoa@ongdeuskadi.org)

### Laguntzaileak



**araba álava**  
foru aldundia diputación foral

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Gipuzkoako  
Foru Aldundia:  
Kultura, Lanbidea, Sektore  
Berria eta Inbertsioak  
ETORKIZUNA  
ORAIN

 Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

**Bilbao**

 DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Lankidetzaren  
Cooperación

# Aurkezpena

## *Garai nahasietan, bake, giza eskubide, berdintasun eta justizia sozial gehiago dira bidea*

Ziurgabetasun uneak bizi ditugu; izan ere, bata bestearen atzetik katean etorri diren krisialdiko hamarkadek **eragin handia izan dute bizi garen mundu global honetako milioika pertsonarengan**, eta ondorio larriak eragin dituzte **giza eskubideetan, bakean edo pertsonen ongizatean**. Ondorio horiek ez dira ustekabekoak; aitzitik, ondo errotuta daude **pobrezia, desberdintasuna, indarkeria eta bidegabekeriak eragiten dituen, ingurumena suntsitzen duen eta pertsona asko bazterrean uzten dituen garapen-eredu batean**. Sistema kapitalista eta heteropatriarkalean, hain zuzen, genero desberdintasunaren ondorioz, **emakumeek gizonen baino baldintza eta posizio okerragoak izatea eragiten duen sisteman**.

Errealitate horren aurrean, Euskadik **ongi antolatutako gizarte zibila** du, **kritikoa** eta **parte-hartzailea**, mundua suntsitzen duten bidegabekerien eta desberdintasunen aurka borrokatzen saiatzen dena. Euskadiko GGKE-en Koordinakundea osatzen duten 83 erakundeek lana ahalegin horren erakusgarri argia da, eta gainerako pertsonen mina, beharrak, gabeziak edo arazoak norberarenak direla sentitzen duten pertsona askoren elkartasunaren eta erantzunkidetasunaren fruitua. Beste herrialde batzuetako erakundeekin elkarlanean, GGKE-ek munduaren **azterketa kritikoa egiten dugu, eta norabidea aldatzeko alternatibak eta proposamenak jartzen ditugu mahai gainean**.

Ildo beretik, euskal erakundeek azken hamarkadetan nazioarteko elkartasunarekin hartutako konpromisoak agerian uzten du **mundu bidezkoago eta solidarioago baten eraikuntzan aurrera pausu bat emateko borondate kolektiboa dagoela**, besoak gurutzatuta ez geratzekoa eta etsipenean ez erortzekoa. Erronka horri elkarrekin egin behar diogu aurre, **arloan publikoan, parte-hartzean, gizarte-sare aktiboan eta analisi kritikoan oinarritutako lankidetzaren eredu propio batetik**.

2024az geroztik, Euskadin, **Lankidetzarako eta Elkartasunerako Lege berri bat** daukagu. Gure ustez, lege-esparru berri horrek aukera emango digu **eboluzionatzen jarraitzeko**, nazioarteko testuinguru berrietara **egokitzeko**,

eta, hala, GGKE garen aldetik, lanean jarraitzeko, bai **gizarte antolatu bat egituratzeko**, bai **paradigma berriak sortzeko, bestelako mundu bat eta hura erregulatzeko arau berri batzuk posible izan daitezzen**.

Planetak bizi duen egoeraren larritasunaren aurrean, guztion konpromiso kolektibo bat behar dugu aberastasunaren banaketaren eta jasangarritasun ekologiko eta sozialaren alde egiteko. Beraz, lehenbailehen atzean utzi behar dugu hazkunde ekonomiko mugagabearen panazea, eta, horren orde, gure kezken eta azterlanen erdigunean jarri pertsonen eta planetaren zaintza.

Konpromiso hori da, hain zuzen ere, Euskadiko GGKE-en sektorearen 2023ko Txosten honetako datuen bidez adierazi nahi duguna. Lan honek **Euskadiko GGKE-en sektorearen argazki adierazgarri bat** erakusten du. Euskadiko GGKE-ek ibilbide luzea egin dute genero-ekitatearen, justizia sozialaren eta giza garapen jasangarriaren kausak defendatzen, horiexek baitira, hain zuzen, bizitzea merezi duen bizitza bat bizitzeko giltzarriak. Gure sarean biltzen diren erakundeen artean elkarlanean egindako txosten honetan zehazten da non lan egiten dugun, zer oinarri sozial dugun, zer sektore lehenesten ditugun eta zer baliabide ditugun.

Baina ez hori bakarrik, **gardentasunerako tresna** bat ere bada, gure lana zintzotasunez eta eraginkortasunez egiten jarraitzeko. Erakunde guztion erantzukizun-ariketa bat da, aukera ematen digulako **gure jardueren irismena eta eragina** herritarrekin, erakundeekin eta laguntzen diegun kolektiboekin **partekatzeko**, eta azpimarratu egiten duelako nola laguntzen dugun, Euskaditik, mundu bidezkoago eta jasangarriago bat eraikitzen, pertsona ororentzat, leku orotan.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu GGKE bazkideei Txosten honetan aurkezten dugun informazioa biltzen laguntzeagatik. **Mila esker, guztioi!**

**Josu Urrutia Beristain**

**Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen lehendakaria**

2024ko urria

Euskal GGKE-etan  
boluntarioak

**2.153**  
pertsona

**% 59**  
emakumeak

**% 41**  
gizonak

**117.774**  
pertsona

Euskadiko  
GGKE-etan oinarri soziala

**3.318.225**  
pertsona

eragiten du gure lana,  
bereziki emakumeak

**8.347**  
pertsona

Euskal  
GGKE-etan emaileak

**839**

Euskal GGKE-ek  
bultzatutako proiektuak

Euskal GGKE-etan  
bazkideak

**107.274**  
pertsona

**353**  
pertsona

ari dira lanean  
Euskadiko GGKE-etan

**% 71**  
emakumeak

**% 29**  
gizonak

**%**  
**80,80**

Genero politika bat  
duten GGKEak

**73.688.967**

€

GGKE-en gastuak  
garapenerako  
lankidetzaz, ekintza  
humanitarioa eta  
gizarte-  
eraldaketarako  
hezkuntza  
ekimenetan

**63**  
herrialdetan

ari dira lanean euskal  
GGKEak

**84**  
GGKEk

osatzen dute Euskadiko  
GGKE-en  
Koordinakundea 2023an

*Lankidetzaren politika egonkorrekin eta gizarteak Euskadiko GGKE-ekin ematen dien laguntzari esker, munduko milioika pertsonaren giza eskubideak defendatzen jarraitu daiteke*

2023ko Euskadiko GGKE-en Txostenaren laburpen exekutibo honetan, gure erakundeei, haien lanari eta protagonistei buruzko argazki orokorra eskaintzen dugu. **Webgune honetan dago txosten osoa: [informedelsector.ongdeuskadi.org](http://informedelsector.ongdeuskadi.org)**, eta inkestari erantzun dioten erakundeen 2022. urteari buruzko informazioa bildzen du.

Gaur egun, **83 erakundek osatzen dute Euskadiko GGKE-en Koordinakundea. 2023an bildu ziren txosten honetarako datuak, eta ordu hartan 84 erakundek osatzen zuten sarea. 68 erakunde kidek erantzun zioten inkesta honi.**


*Aztoramendu eta ziurgabetasun handiko garaiotan, 83 euskal erakunde lanean ari dira, bakearen, giza eskubideen defentsaren eta mundu bidezkoago baten alde, pertsona guztientzat eta leku guztientzat*

**353 pertsonak dihardute** lanean Euskadiko GGKE-etan (% **71 emakumeak dira eta % 29 gizonak**), beraz, ondoriozta dezakegu Euskadiko GGKE-en sektorea feminizatuta dagoela, argi eta garbi. **Kooperanteak aipatuz gero, emakumezkoen ehunekoak nabarmen egiten duela** behera ikus dezakegu. Zehazki, kooperanteen % 65 emakumezkoak eta % 35 gizonazkoak dira. Langile gehienek erakundeen Euskadiko egoitzetan dihardute.

Kontratu mugagabeak eta lanaldi osokoak dira kontratu-modalitate ohikoenak. Hala ere, **emakumezkoek kontratu mugagabe gutxiago eta lanaldi murriztu gehiago dituzte gizonazkoek baino**. Sektorea feminizatuta egon arren, **maskulinizatu egiten da erakundeen gobernu-espazioetan**, egoera hori iraultzeko borondate politiko argia dagoen arren.

### Personal de las ONGD según sexo y lugar de trabajo

Utiliza el selector para cambiar de ONGD o pulsa en los botones para cambiar de datos




Gure erakundeek egiten duten lana mundu osoan zehar zabaldua dago, eta **3.318.225 pertsonarengana iristen da.**

GGKEak **63 herrialdetan daude presente**, eta hobetu egiten dute milioika pertsonaren bizi-baldintzak, lankidetzako beste aktore batzuk iristen ez diren urrutiko eremu isolatuetan. Beraz, **GGKE-ek funtsezko eginkizun ordezkazina betetzen dute, pertsona askori bizitza aldatzen diena.**

GGKE-ek **839 lankidetzaproiektu** gauzatzen dituzte (ekintza humanitarioa, larrialdiak eta gizarte-eraldaketahearako hezkuntzako ekimenak kontuan izan gabe), guztien artean, esku hartzen duten herrialdeetan, eta **57.889.799 euro** inbertitzen dituzte haietan.


### Mapa de proyectos por países

'M' = millones; 'k' = miles.  Pulsa en un país para ver más detalles, como cuántos proyectos tiene cada ONGD en él y cuánto invierte en ellos





2022an, GGKE-en inbertsioen **ahalegin ekonomikoak** herrialde hauetan egin ziren: **Guatemala, Peru, Kolonia, Kongoko Errepublika Demokratikoa, India, Palestina, Senegal, Mendebaldeko Sahara, Mexiko** edo **Kuba**, besteak beste.




**839** proiektuetatik gehienak **Guatemalan (76), Perun (69), Indian (63), Kolonian (52), Bolivian (42)** edo **Kongoko Errepublika Demokratikoan (37)** gauzatzen dira, besteak beste.


Euskadiko GGKE-ek mundu osoko herri eta komunitateekin lan egiten dute. **Afrikan, 1.491.576 pertsonarengana** iristen dira, **Amerikan 1.174.607rengana**, **Asian 448.639rengana** eta **Ekialde Hurbilean 193.192rengana**. Sexua kontuan hartuz gero, **Afrikan % 56,39 emakumezkoak** dira, **Amerikan % 59,96**, **Asian % 64,54** eta **Ekialde Hurbilean % 62,28**.

Zehaztu beharra dago azken urteotan Erdialdeko Amerikako hainbat herrialdetan, hala nola Nikaraguan, Guatemalan eta El Salvadorren, **zenbait gertaerak kriminalizatu egin dituztela elkartasuna eta giza eskubideen defentsa**, eta **txikiagotu egin direla gizarte zibilaren espazio zibikoak**. Horrek guztiak **zaildu** egin du, eta batzuetan **eten** ere bai, GGKE-en lana leku horietan.

### Población con la que trabajamos

Utiliza los botones para ver las cifras en conjunto o compararlas.  Pulsa en las columnas del gráfico para ver más detalles. La recopilación de estos datos es compleja y la cifra puede estar duplicada. La ausencia de datos sobre la población con la que trabaja cualquier ONGD no significa que no trabajen con personas de un continente: muchas tienen proyectos en la zona (ver el mapa del informe para más detalles)

Mujeres
  Hombres
  Personas no binarias





 Coordinadora de ONGD Euskadi.  
 Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2023  
 Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para La Coordinadora.

Gure erakundeen proiektuek 20 jarduera-sektore dituzte ardatz. Zehazki, **42 herrialdetan** egiten dute **hezkuntzari lotutako lana**, eta lan horretan, besteak beste, herrialde hauek nabarmentzen dira: Bolivia, Ekuador, Kolonbia edo Kongoko Errepublika Demokratikoa. **38 herrialdetan** emakumeei laguntzeko lan egiten dute, **generoari eta feminismoei buruzko proiektu** espezifiko bidez; besteak beste, herrialde hauetan: Peru, Nikaragua, El Salvador, Guatemala, Kuba, India edo Senegal. Ondoren, **giza eskubideen defentsan** egiten duten lana dator (**39 herrialde**), hala nola Mexikon, Kolonbian, Bolivian, Palestinan edo Kongoko Errepublika Demokratikoan; **nekazaritzaren esparruan** egiten duten lana (**37 herrialde**), Kolonbian, Bolivian, El Salvadorren, Mozambiken edo Senegalen, adibidez; edo **osasunari** lotuta egiten duten lana (**40 herrialde**), Dominikar Errepublikan, Mexikon, Kongoko Errepublika Demokratikoan edo Indian, kasurako.


### Sectores y población destinataria de los proyectos de las ONGD

Pulsa en un país para ver las ONGD con proyectos enfocados en un sector o tipo de población



Lankidetzaproiektuen **populazio hartzaileari** dagokionez, erakunde gehienek **emakumeetan jartzen dute arreta (46 herrialdetan)**. Ondoren, **landaremuetako biztanleetan jartzen dute arreta (37 herrialdetan** jasotzen baitute arreta handia), eta, hurrena, **gazteetan (39 herrialdetan)** eta **haurretan (40 herrialdetan)**.

**Gure GGKE-ek batez ere emakumeekin egiten dute lan, sektore guztietan eta munduko eskualde guztietan. Izan ere, 1.966.438 emakumezkorekin lan egiten dugu, eta 1.353.766 gizonezkorekin.** Oro har, ikusten da gure erakundeen lanak inpaktu nabaria duela emakumeen eta neskatoen bizitzetan.



Erakunde-politikak GGKE-etan dagokionez, erakundeen **% 80,80k generopolitika** bat du. **% 75ak sexu-jazarpenari buruzko protokolo** bat du indarrean. **% 33,80k ingurumen-kudeaketarako politika** bat landu du.

# Nork laguntzen digu

## GGKE-en lana babesten duen oinarri soziala handitu egin da


2022an, Euskadiko GGKE-en **oinarri soziala 117.774 pertsonak** osatzen zuten. Kopuru horretan sartuta daude bai laguntza ekonomikoa ematen dutenak, bazkideak eta emaileak, bai boluntario-lanen bat egiten dutenak.


**2.153 pertsonak dihardute boluntario** gisa Euskadiko GGKE-etan, horietako ia hamarretik sei emakumezkoak dira (59,51). GGKE-en egoitzetan edo haien gobernu-organoetan parte hartuz boluntariotza-lanen bat egiten duten pertsonak sartu ditugu atal honetan. Boluntariotza-lanean presentzia handiena duen adin-tartea **30 eta 64 urte bitartekoa da (emakumeak bereziki)**.

**Pertsona emaileak** ere behar-beharrezkoak dira GGKE-ek beren lana egin dezaten. Zehazki, **8.347 pertsona** dira.



**107.274 bazkidek** laguntzen diete Euskadiko GGKE-ek. Gehienak partikularrak dira, bazkide diren erakunde pribatuak baino gehiago.

## Base social de las ONGD

En número de personas y entidades. 'k' = miles.  Pulsa en las barras para desglosarlas y, para volver, pulsa en un sitio en blanco del gráfico o en el botón encima de él



 Coordinadora de ONGD Euskadi.  
Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2023  
Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para La Coordinadora.

 Datos  Insertar  Descargar

*Euskal ekonomiaren bilakaerak eta euskal lankidetzaren politiken nolabaiteko egonkortasunak pixka bat handitu dituzte GGKE-en funtsak, eta, horri esker, giza eskubideen aldeko esku-hartzeekin jarraitu dezakete*

**Erakundeen diru-sarrerari** dagokionez, 2022ko datuen arabera, **diru-sarrera publiko zein pribatuen igoera txiki bat** nabari da, politika publikoen eragina pixkanaka ahultzen joan den hamarkada baten ostean. **Igoera hori positiboa da, baina oraindik ez da nahikoa**; izan ere, **euskal erakundeek lankidetzara bideratutako ehunekoak ez da aldatu**.

2022an, **GGKE-ek 76.680.406 euroko diru-sarrerak izan zituzten guztien artean. % 74,43 funts publikoak** (kopuru horretatik, % 86,58 erkidegoetako eta tokiko funtsetatik dator, eta gainerakoa, **esparru nazionalako edo europareko funtsetatik**).

Gainerako **finantziarioa pribatua** da, **% 25,56 zehazki**. Gehiena (finantziario pribatu osoaren **% 40,37**) **noizean behingo dohaintzak** dira (horien artean sartzen dira pertsona fisikoen noizean behingo dohaintzak eta baliabideak lortzeko gainerako kanpainak). Horien atzetik datoz **aldizkako kuotak**. Zehazki, GGKE-en funts pribatuen **% 34** dira. Hirugarren postuan daude bestelako **diru-sarrera pribatuak**. Finantziario pribatuaren **% 26,60** dira.

**Finantzaketa pribatuaren ehuneko-igoera txiki bat** gertatu dela nabarmentzen dugu, eta **finantzaketa publikoaren ehuneko-jaitsiera** bat, 2021eko aurreko txostenarekin alderatuta. Hala ere, ezin dugu ondorioztatu joera aldaketa bat denik.

Goranzko joera arin hori interpretatzeko, kontuan hartu behar da pandemiak eragindako salbuespenezko egoera, 2021eko txosteneko datuak, alegia (datuak 2020koak ziren). Izan ere, aldi hartan, ez administrazioen diru-kopuruak, ez dohaintza pribatuak, ez proiektuak gauzatzeko aukerak, ez ziren normaltasun-testuinguru batean izango liratekeenak, eta, beraz, hazkunde txiki hori ñabartu egin behar da. Gainera, kopuru absolututan funts gehiago dauden arren, ehunekotan **ez gaude pandemiaren aurreko egoera baino egoera hobean.**

Beraz, **lankidetzarako euskal politiken egonkortasunari balioa ematen diogun** arren, irakurketa zabalagoa eta sakonagoa egin behar da, **triumfalismoan ez erortzeko** edo diagnostikoan **gehiegizko baikortasunik ez izateko.**


### Ingresos de las ONGD

'M' = millones; 'k' = miles. Pulsa en las barras para desglosarlas y, para volver, pulsa en un sitio en blanco del gráfico o en el botón encima de él. Utiliza los botones para cambiar de año



### Evolución de ingresos de las ONGD 2019-2022

En millones de euros. Utiliza los botones para ver las cifras en conjunto o compararlas



## Garapenerako lankidetzarako, larrialdietarako eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzarako proiektuak, GGKE-en lanaren ardatzak

Erakundeen gastuei dagokionez, 2022an, gure GGKE-ek 73.688.967 euro inbertitu zituzten guztien artean, besteak beste, **garapenerako lankidetzak, ekintza humanitaria eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza** barne hartzen dituzten jardueretan.

**Garapenerako lankidetzaren aurrekontuari** bakarrik begiratzen badiogu, azpimarragarria da gastuen % **67,08** garapenerako lankidetzak-proiektuak gauzatzeko eta % **21,69** ekintza humanitariorako eta larrialdietarako erabili zela. Gainerako baliabideak, hau da, % **11,22**, **boluntariotzarako, eragin politikorako eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektuetan** inbertitu ziren.

### Gastos de las ONGD

'M' = millones; 'k' = miles.  Pulsa en las barras para desglosarlas y, para volver, pulsa en un sitio en blanco del gráfico o en el botón encima de él. Utiliza los botones para cambiar de año



Coordinadora de ONGD Euskadi.  
Informe del Sector de las ONGD en Euskadi 2023  
Gráfico basado en el código original de Fernando Anido para La Coordinadora.

Datos

Insertar

Descargar